

Ihauteriak: sei irakurketa

Xabier Itçaina

(*Sciences po Bordeaux- European University Institute, Florence*)

x.itcaina@sciencespobordeaux.fr

Hitzaldiaren egitura

- Helburua: besta hortaz egin ditaizken *irakurketa* desberdinen azpimarratzea
- Ihauteria aspalditik miatua izana IEHan, hiru ikerle belaunaldi:
 - XIX-XX mendeetako jakintzunak: Badé, Chaho, Webster, Michel, Blunt, Alford, Hérèlle,...
 - 1960-1970 urteetan : ikerketa sistematikoak (Guilcher, Sagaseta, ...).
 - 1980 urteetarik aintzina: tokian tokiko ikerle-eragileak
 - Metodoen baitezpadako kurutzatzea

Lapurdi, Baxenabarre eta Xiberun eremanak izan diren ikerketetarik abiatuz: ihauterien erranahia sei “tentsione”-ren inguruan eraikitzen dela:

1. Barne/kanpo

Herriko, kartierreko eta etxen arteko mugen berriz markatzea urte hastapenean.

- Espazio desberdinen arteko lotura azkartzen da: ihauteria kurutzatze garai bat da.
- Bainan mugak nun diren ere orroitarazten: nor den barne eta nor den kanpo

2. Hartu / eman

Eskeak: kantu eta dantza / edate, janari eta batzarriaren truke.

Hiru eske mota urtats eta garizuma artean, elgarrekin edo berex:

- Maskak
- Dantzariak (kaxkarotak, karatotxak, bolantak, aintzindariak...)
- Buhameak

3. Jan-edan / barur eta mehe

- *Carnevale* (*carnis levare*: haragia kendu) / Garizuma
- Neguaren beldurra/primadera, urte zahar/berriaren arteko junta ziklikoa
- Elizarekilako hautsi-mautsiak

4. Basa / zibilizatua: sinbolo ilunak

- Hartza eta erakuslea / jaun-andere esposak, negu/primadera; ilun/argi
- Kabalekilako jokoak gazteri buruen izendatzeko

4. Ezkonduak / ezkontzekoak

- Ihauteri eztei-sasoina
- Ezkont-berriek urteko ardura berriak hartzen (klaberen izendatzea Itsasun Ganderailuz)
- (gizonezko) gazteriak ezkontzen “merkatuaren” gainean zaukan eskubidea orroitarazten
- Tobera-galarrotsak usu ihauteriz, bainan ez bakarrik

5. Boterea zirikatu / indartu

- Masken debekuak Baionako Elizaren partetik Erdi-arotik geroz
- Ihauteria oldartze politiko bihurtzen: Romans 1580, Bordale 1651, *Révolte des Demoiselles* Ariège-en (XIXe), Savonarola-ren *fulò delle vanità* Florentzian (1497)
- Zan Pantzarren jujamendua eta zirika
- Botereak, orden soziala, generoak binperraz ezarriak epe mugatu batentzat
- Botere zibilak ihauteriak onhartzen salbu ordenu publikoa mehatxatua zelarik
- Ihauteriak klase sozialen arteko gatazka denbora bezala (Donibane Garazi 1832)

6. Ohidurari jarraiki / uko egin / aldatu

- Maskarada, kabalkada eta kaxkaroten ahultzea Bigarren Mundu Gerla ondoan
- Berrabiatzea 1960-70 urteetan Xiberun eta Baxenabarren, 1980 urteetan Lapurdin
- Gaurko ihauteriek gaurko beldurrer ihardesten ote?